

Unitatearen laburpena

Hiztegia – Artea eta kultura

Soinu Entzuten duguna

Musika-tresna Musika egiteko balio duen objektua

Bozgorailua Soinua ateratzen duen aparatua.

Abesbatza Elkarrekin abesten duen pertsona-taldea

Abeslari Abesten duen pertsona

Afoniko Ahotsik gabe gelditu den pertsona



Informazio-testua

LABURPENA: Van Gogh Ekiloreak margolanari buruzko testu bat irakurri dugu.

HITZ ZAILAK: ekilore, lehen plano, pintzelkada, tonua

ESTRATEGIAK: Erabili irudiak hitz berriak errazago ulertzeko.

Jarraibideak eman

Zerbait egiten hasi aurretik, hau egin behar dugu:

Behariko dugun materiala antolatu.

- Lanerako leku bat aukeratu.
- Zeregina nola egingo dugun jakiteko jarraibide batzuk prestatu..

Jarraibideak emateko urratsak


1. Hitz egin poliki eta argi
2. Erabili hitz sinpleak.
3. Azaldu urratsak ordenan azaldu.
4. Galdetu zalantzarik dagoen.

Perpaua

Esaldi batean....

1. Hitzak banatuta daude.
2. Hitzak zentzua izan dezaten ordenatuta daude.
3. Letra larriarekin hasten da eta puntuarekin bukatzen da.

Astronauta ilargira iritsi da.



Komikiak

Komikia **laukitxoetan** azalduetako istorioa da, marrazkiak eta testu laburrak dituena.

Komikietan, pertsonaiek **bunbuiloak** izeneko burbuletan hitz egiten edo pentsatzen dute.



Iragarki bat idatzi

Ezaugarriak:

- Idatzi salgaiaren **izena** edo **marka**.
- Asmatu **esaldi labur** eta deigarri bat, deskribatzeko.
- Zer **ezaugarri on** dituen azal dezakezu laburki.
- **Irudi** bat jartzen baduzu, hobeto salduko da.